



# IKASTETXEAREN URTEKO PLANA

Plan anual del centro

2021-2022

# Aurkibidea índice

---

<b>1. Sarrera eta justifikazioa</b> <i>introducción y justificación</i>	X
<b>2. Helburu orokorrak eta jardueren planifikazioa</b> <i>objetivos generales y planificación de actividades</i>	X
<b>3. Irakaskuntza-jardueren programa</b> <i>programa de actividades docentes</i>	
<b>3.1. Ohiko irakaskuntza-jarduerak</b> <i>actividades docentes ordinarias</i>	
<b>3.1.1. Antolaketa eta funtzionamenduaren aspektuak</b> <i>aspectos de organización y funcionamiento.</i>	X
<b>3.1.2. Esperientziak, programak eta proiektuak</b> <i>experiencias, programas y proyectos</i>	X
<b>3.1.3. Prestakuntza eta garapen profesionala</b> <i>formación y desarrollo profesional</i>	X
<b>3.2. Irakaskuntza-jarduera osarrien programa</b> <i>programa de actividades complementarias</i>	X
<b>4. Eskolaz kanpoko jardueren programa</b> <i>programa de actividades extraescolares</i>	X
<b>5. Eskolako zerbitzuak</b> <i>servicios escolares</i>	X
<b>6. Ekonomia-kudeaketarako plana</b> <i>plan de gestión económica</i>	X
<b>7. Hezkuntza-komunitateari informazioa helarazteko plana</b> <i>plan de información a la comunidad escolar</i>	X

**8. IUPren garapenaren eta ikastetxearen funtzionamenduaren jarraipena.** X

*seguimiento del desarrollo del plan anual y del funcionamiento del centro*

**9. Eranskinak** X

*anexos*

**9.1. OOGren onartze-agiria**

*acta de aprobación del OMR*

**9.2. Ikastetxearen plan espezifikoak**

*planes específicos del centro*

# 1. Sarrera introducción

---

## ↳ **Helburuen aukeraketarako oinarri era arrazoiak** *Explicación de las razones que justifican la elección de los objetivos*

Ikasturte honetan ere, euskarari emango diogu garrantzia. Umeek euren artean gaztelaniaz hitz egiteko joera daukate azken urteotan. Pandemia garaiak egoera hau nabarmendu du eta ikasle askoz azken hilabeteetan erderaz hitz egiteko joera hartu dute eskolan eta eskolaz kanpo ere bai.

Eskolan ez ezik, herri mailan ere arazoa larriagotzen hasi da eta udaletxearekin batera, ekintza ezberdinak antolatuko ditugu ikasleen artean euskararen erabilera indartzeko asmoz.

Bestetik, programazioak eta unitate didaktikoak eguneratuko eta moldatuko ditugu gaur egun maila horretan dauden ikasleei. Programaketak egiterakoan, ikuspegi hezkidetzalea izango dugu, hau da, momentu oro betaurreko moreak jantzita izango ditugu jarduerak prestatzerakoan.

Konpetentzi digitalari dagokionez, LHko ikasle guztiak trebatzen jarraituko dugu autonomia digitala izateko gure ikasle guztiek. Zuzendaritza proiektuko 4. urtea da (2018-2022).

## ↳ **Erabakiak hartzean eragina izan duten aspektu edota faktoreak** *Aspectos y/o situaciones que han determinado la toma de decisiones*

Goian aipatutako helburuak egungo egunerokotasunaren islada dira eta horrela adierazten da oroitidazkian ere. Dokumentu horretan, eskolako eremu libreetan euskararen erabilera geroz eta okerragoa dela nabarmentzen da. Ikasleek gaztelaniaz hitz egiteko joera daukate eta egoera honi aurre egiteko ekintza ezberdinak antolatuko ditugu, bai eskolan eta baita herri mailan ere.

## ↳ **Egiteko prozedura eta lan-metodologia** *Proceso de elaboración y metodología utilizada*

Iazko IUPean oinarritu gara aurtengoa egiteko. Moldaketak egin ondoren, ikasketa buruak batzorde pedagogikoan aurkeztu du eta ondoren, google DRIVEtik irakasleekin partekatzen du behar diren moldaketa guztiak egiteko. Irakaslego guztiak bere ekarpenak egin ondoren prozesuari bukaera ematen diogu dokumentuari orrazketa eta maketazioa emanaz.

Bukatzeko, ikasketa buruak google DRIVEetik informazioa deskargatu eta behin betiko IUP ateratzen du. Klaustroak eta OOGetik pasatu ondoren, ikuskaritzako webgunera igoko du zuzendariak. Paperean kopia bat aterako da eta eskolan geratuko da eskola komunitateak nahi duenean ikusteko. Hala ere IUPa ikusgai jartzen da eskolako web gunean.

Ikasketa buruak IUP kopia bat bere M karpetan sartzen du eta beste bat eskolako dokumentu nagusien barruan, irakaslegoak eskuragarri izan dezan behar duen momentu guztietan.

⬇ **Hezkuntza-komunitatearen ekarpenak** *Participación y aportación de datos de la comunidad*

	<b>bai</b>	<b>ez</b>	<b>zer-nola</b> <i>qué-cómo</i>
Klaustroa <i>claudio</i>	x		Drive bidez ekarpenak eginez.
Batzorde pedagogikoa <i>Comisión Pedagógica</i>	x		Drive bidez ekarpenak eginez.
Zikloetako taldeak <i>Equipos de ciclo</i>	x		Drive bidez ekarpenak eginez.
Mailetako taldeak <i>Equipos de nivel</i>		x	
Departamentuak <i>Departamentos didácticos</i>		x	
Proiektuen arduradunak <i>Responsables de proyectos</i>	x		Drive bidez ekarpenak eginez.
Zikloetako koordinatzaileak <i>Coordinadores/as ciclos</i>	x		Drive bidez ekarpenak eginez.
Ikasleriaren ordezkariak <i>Delegados/as del alumnado</i>		x	
Familiaren ordezkariak <i>Respresentantes familias-IGE_AMPA</i>	x		Emailez
Admin. eta Zerbitzuen langileria <i>Personal Adm. Serv.</i>		x	
Zuzendaritza taldea <i>El equipo directivo</i>	x		Drive bidez ekarpenak eginez.
Entrepresak-erakundeak <i>Empresas-instituciones</i>		x	
Beste batzuk <i>Otros (identificar quiénes)</i>		x	Elkarbizitza behatokia. (Udala, jantokia, irakaslegoa, ikaslegoa) Batzarrak eginez.

## 2. Helburu orokorrak eta jardueren planifikaz

*generales y planificación de actividades*

## 2.1. Helburu orokorrak objetivos generales

Helburuaren formulazioa	Kontuan hartu diren iturburuaren aspektu zehatzen identifikazioa eta deskribapena eta eraginda diren ikastetxearen esparruak
1.- Euskararen erabileraren inguruko plan estrategikoarekin jarraitzea.	Eremu libreetan euskararen erabilera geroz eta eskasagoa da eta hau indartzeko ekintza ezberdinak antolatuko ditugu, eskola eta herria elkarlanean. Jangelako orduetan ere bai.
2.- Konpetentzia digitala lantzen jarraitzea.	LHko ikasle guztiek, mailaren arabera eta programazio bat oinarrian izanik, gailu digitalekin trebatzea.
3.- Programazioak eta arazo egoerak berrikustea.	Programazioak moldatu eta berrantolatu.
4.- Zuzendaritza proiektuaren jarraipena 2018-2022 egitea.	4.urtea da. Proposatutako jarduerari jarraipena ematea. Ikuskaritzatik dagokion ebaluazioak burutzea eta hobekuntzak bideratzea.

## 2.2. Jardueren planifikazioa planificación de las actividades

### Helburua *Objetivo 1*

Euskararen erabileraren inguruko plan estrategikoarekin jarraitzea.

<b>jarduerak</b> <i>actividades</i>	<b>arduraduna- agenteak</b> <i>responsable y agentes</i>	<b>denboralizazio a</b> <i>temporalización</i>	<b>baliabideak</b> <i>recursos</i>	<b>ebaluazioa: adierazleak eta datak</b> <i>evaluación: indicadores y fechas</i>
BOTILA SISTEMA "Gure botila euskaraz bete dadila" 1 eta 2. zikloetan	Irakasleak.	Urte guztian egiteko, baina lehiaketa 15ero errebisatu.	12 botila 12 marrazki	* 33cl ko botila gehitu 5 litroko garrafara. * Asko hitz egiten badute: 33cl Erdizka: erdia. 16cl

				Gutxi: ezebez * Eskolako grafikoa egin emaitzekin. LH6ko ikasleek.l * Hiruhilabetean behin bildu.
ESKOLAKO EUSKARAREN EGUNerako ekintzak: txistek, aho korapiloak, lelo lehiaketa, marrazki lehiaketa (eskolako maskota), HERRI KIROLAK,... Covid 19a dela eta posible da ekintza batzuk bertan behera gelditzea.	Normalkuntzak o batzordea	3.hiruhilabetean	Beharren arabera	* Ikasleen ebaluazioa gelaka 3.hiruhilabetearen bukaeran
ESKOLA APAINTZEA EGINDAKO LELO, MARRAZKI,...	2.zikloko Irakasleak	3. hiruhilabetean	Egindako lanekin eskola apaindu	* Ikasleen ebaluazioa gelaka. ekintza egin eta gero.
Argitxo Haur Hezkuntzan	Iratxe Olibares	Hilabetero	Material ezberdinak	* Euskararen erabilera sustatu den baloratu Argitxo etorri ondoren. * Hiru hilabetero
Euskara errefortzuak HH4 ETA HH5	Marta Peña	Astean ordu 1eko saioa bat.	Material ezberdinak	* Euskararen erabilera sustatu den baloratu. * Otsailean eta ekainean.
Liburuaren Eguna Apirilak 23	Liria Gonzalez Ania	3. hiruhilabetean	Material ezberdinak	* Ikasleen ebaluazioa gelaka. Ekintza burutu ostean
Maleta ibiltaria	1.zikloa	Egunero	Ikasleek etxeko hiru gauza gustoko ekarri eta besteei azaldu	* Ahozko adierazmena lantzeko liburuak zein jolasak erabili azalpenak emateko.

Txistek, asmakizunak, antzerki txikiak, abestiak etab. ahozotasuna lantzea tokatzen zaigunean.	LH 1 zikloko irakasleak	15 ean behin	Ikasleek etxetik ekarritako materiala eta guk sortutakoa...	Koordinazio saioetan eta ebaluazio saioetan.
Esaldiak zuzendu	LH 1 zikloko irakasleak	Astean behin	Gelako arbelean idatzitakoa.	zikloetan eta ebaluazio saioetan.
Akatsen ospitala LH4 eta LH 5.mailan	Leire Salazar Unai Egia Nagore Lopez Clara Prego	Urte osoan zehar	Horma irudia	Urte bukaeran
Euskal abestien zerrenda	Irakasleak	Plastika saioetan, lasai dauden momentuetan, gaiak eskatzen duenean...	Musika karpeta orokor batean egongo da gordeta	Urte bukaeran
Haur Literatur Aretoa	Udaletxea	Azaroan	Erakusketa girotua Ikuskizuna Antzerkia Scape Room	* Ikasleen ebaluazioa gelaka. * Ekintza egin ondoren
Bertsolaritza LH 6	Aitor Adot Joseba Abrales	15ean behin	Bertsolaritzako liburua	* Ikasleen ebaluazioetan. * 2021ko azaroa, 2022eko martxoan eta ekainean.

### Helburua *Objetivo 2*

Konpetentzia digitala lantzen jarraitzea

<b>jarduerak</b> <i>actividades</i>	<b>arduraduna- agenteak</b> <i>responsable y agentes</i>	<b>denboralizazio a</b> <i>temporalización</i>	<b>baliabideak</b> <i>recursos</i>	<b>ebaluazioa: adierazleak eta datak</b> <i>evaluación: indicadores y fechas</i>
--	---	---	---------------------------------------	---



LHko ikasle guztiek informatikako saio bat izatea astean.	Irakasle guztiak	2021-2022 ikasturtean	Ordenagailuak Programzaioa	* Ikasleen ebaluazioetan. * 2021ko azaroa, 2022eko martxoan eta ekainean.
---	------------------	-----------------------	-------------------------------	--

### Helburua *Objetivo 3*

Programazioak eta arazo egoerak berrikustea.
--

<b>jarduerak</b> <i>actividades</i>	<b>arduraduna- agenteak</b> <i>responsable y agentes</i>	<b>denboraliz- azioa</b> <i>temporaliza- ción</i>	<b>baliabideak</b> <i>recursos</i>	<b>ebaluazioa: adierazleak eta datak</b> <i>evaluación: indicadores y fechas</i>
Egindakoak berrikusi eta eguneratu.	Irakasle guztiak	2021-2022 ikasturtea	*Gelan erabiltzen ditugun materialak eta ikasleen interesetan oinarrituta.	* Aurreko urtekoak . * 2022ko ekaina
Talde kohesioa landu, emozioen lanketa eta modu hezkidetzailan.	Irakasle guztiak	2021-2022 ikasturtea	*Paco Gascon-en materiala. *Adimen emozionala. *Bizikasiko materiala	* Ikasleen ebaluazioetan. * 2021ko azaroa, 2022eko martxoan eta ekainean.

### Helburua *Objetivo 4*

Zuzendaritza proiektuaren jarraipena egitea. (2018-2022).
---

<b>jarduerak</b> <i>actividades</i>	<b>arduraduna- agenteak</b> <i>responsable y agentes</i>	<b>denboraliza- zioa</b> <i>temporaliza- ción</i>	<b>baliabideak</b> <i>recursos</i>	<b>ebaluazioa: adierazleak eta datak</b> <i>evaluación: indicadores y fechas</i>
--	---	--	---------------------------------------	---

Irakasleen eta ikasleen harrera plana berriztea	- Ikasketa buru eta tutoreak	2021-2022	-Aurreko harrera planak	- Plana irakasle guztiei komunikatzea -Plana informatzeko klaustroaren akta
Irakasleek aurreikusten duten formakuntzan dekalogoia.	- Zikloko koordinatzaileak - Ikasketa burua	2021/2022	- Oroitidazkitik Ateratako beharrak. -Irakasleen banakako bileretatik jasotako iradokizunak	- Ikastaroen zerrenda (hurrengo IUP agertuko dira)
Informazioa jaso eta bidaltzeko prozesua	- Zuzendaritza taldea - Guraso elkarteak - Ikt/premia	2021/2022	-kurtso hasierakoa txostena. -IUP	- Akta
Eskola komunitatearen parte hartze sustatzea	- Zuzendaritza - Ige - OOG	2021/2022	- Iradokizun buzoia	-Parte hartzeko prozedura ezarri.
Barne eta kanpo ebaluaketak abiapuntu hartuta hobekuntza prozesuak bideratu.	- Batzorde pedagogikoa	2021/2022	- Kurtso bukaerako emaitzak - Ebaluazio diagnostikoko emaitzak	- Aurreko urteetako datuen alderaketa koadroa.
Ikasleen emaitzak hobetzen laguntzea - Eise - Bidelaguna	- Ikasketa buruak - Batzorde pedagogikoa. - Aholkularia - Amankomunazgoak - Ziba	2021/2022	- Koordinazio bilerak	- Kurtso bukaerako balorazioa
Hibp-pire sistematizatzea	- Ikasketa Burua - Batzorde Pedagogikoa - Tutoreak - Aholkularia	2021/2022	- Aurreko Hibp	- Ikasle bakoitzaren karpeta - Irakasleei nola bete behar denaren klaustroa

### **3 Irakaskuntza-jardueren programa** *Programa de actividades docentes*

#### **3.1. Ohiko irakaskuntza-jarduerak** *Actividades docentes ordinarias*

##### **3.1.1. Ikastetxearen funtzionamendu atalak [DAE]** **aspectos de funcionamiento general del centro**

[!\[\]\(4729e517bc6a7cd81c8025b9646574fb\_img.jpg\) \*\*Eskola egutegia eta ordutegia\*\*](#) *Calendario escolar y horario general del centro [imprimir desde la aplicación]*

## 2021-2022KO ZENTROAREN EGUTEGIA

Maita: HAUR-LEHEN HEZKUNTZA

Ikastetxeko kodea: 014457  
Ikastetxearen izena: CEIP ZALDIBAR HLHI  
Kurtsoa: 2021-2022  
Udalerrria: Zaldibar  
Lurraldea: Bizkaia  
Ikusk. Zonaldea: Bilbao: Zona 1

### IRAILA

AL.	AS.	AZ.	OG.	OR.	LR.	IG.
1	2	3	4	5		
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30			

### URRIA

AL.	AS.	AZ.	OG.	OR.	LR.	IG.
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

### AZAROA

AL.	AS.	AZ.	OG.	OR.	LR.	IG.
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					

### ABENDUA

AL.	AS.	AZ.	OG.	OR.	LR.	IG.
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

### URTARRILA

AL.	AS.	AZ.	OG.	OR.	LR.	IG.
				1	2	
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30
31						

### OTSAILA

AL.	AS.	AZ.	OG.	OR.	LR.	IG.
1	2	3	4	5	6	
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28						

### MARTXOA

AL.	AS.	AZ.	OG.	OR.	LR.	IG.
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

### APIRILA

AL.	AS.	AZ.	OG.	OR.	LR.	IG.
		4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30						

### MAIATZA

AL.	AS.	AZ.	OG.	OR.	LR.	IG.
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

### EKAINA

AL.	AS.	AZ.	OG.	OR.	LR.	IG.
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30			

EGUNA	GOIZEZ	ARRATSALDEZ
AL.	09:00-12:30	14:30-16:00
AS.	09:00-12:30	14:30-16:00
AZ.	09:00-12:30	14:30-16:00
OG.	09:00-12:30	14:30-16:00
OR.	09:00-12:30	14:30-16:00
TRI	09:00-13:00	
BER	09:00-13:00	

Guztira Eskola-egunak: 177  
Guztira Klase-egunak: 177  
Eskola-orduak guztira: 875:00

Lektiboa	15	Asteburua	15	Jardunaldi trinkoa	15	Jardunaldi berezia	15
Jaieguna	15	Klase gabeko lektibo	15	Oporraldiak	15	Zaintzari eguna	15
Herri jaia	15	Inhauteria	15	Zubia	15	Aurkezpena	15

Lurralde ordezkariak dokumentu honetan jasotzen den 2021-2022 ikasturteko egutegi eta ordutegia onartzea erabaki du.  
Bilbon, 2021eko ekainaren 4an

BIZKAIKO LURRALDE ORDEZKARIAK




CEIP ZALDIBAR HLHIko zuzendari jaun/andrea

Izpta.: IGNACIO ORBE ONAINDIA

## **HAUR HEZKUNTZAN**

Ikasturtearen lehenengo egunean ohar baten bidez gurasoei hasierako informazio garrantzitsua bidaliko zaie. Gurasoekin batzar orokor bat egiten da, irailaren amaieran edo urriaren hasieran.

Ebaluazio jarraia prozesu guztian zehar egingo da gelan, baina batez ere, unitate didaktikoa bukatzerakoan.

Otsaila eta ekaineko ebaluazioan gelan sartzen diren irakasle guztiek hartuko dute parte. Ebaluazioa egin ondoren gurasoekin elkarrizketa izango dugu bai otsailean eta baita ekainean ere. Ekaineko bileran txosten idatzia erabiliko da, ale bat eskolan geldituko da eta bestea familiei luzatuko zaie..

2 urtekoek azaro-abendu aldera egokitzapenari buruzko bilera izaten dute banaka, eta maiatza-ekainean bigarrena egiten dute.

## **LEHEN HEZKUNTZAN**

Ebaluazio iraunkorra prozesu guztian zehar egingo da gelan. Data hauetan gurasoei gure ikasleei buruzko txosten informatibo bat emango diegu. Ebaluazio hauetan zikloko tutore, espezialista, errefortzuko irakasleak, kontsultoreak, eta ikasketa buruak hartuko dute parte. Ebaluazio datak hirugarren hilabetean ikasle kopurua kontuan izanik ipiniko dira.

Ebaluazio saioak hasi dokumentu nagusiak-ikasleak-ebaluazioak karpetan gela bakoitzaren arloz arloko txantilo bat sartuko da eta irakasle bakoitzak ikasle eta arlo guztietako emaitzak idatzi beharko ditu aipatutako txantiloian. Emaitzak ebaluazio saioa baino lehenago bete beharko dira.

Espezialistek, ikasle bakoitzari buruzko komentarioak beste karpeta batean sartuko dituzte.

Ebaluazio saio bukaeran ikasleen datuen irakurketa horizontala (zenbat arlo gainditu gabe dituen ikasleak) egingo da dagozkien komentarioak aktan jarritz.

Gela bakoitzean ere arloetako goitik beherako (arlo bakoitzean zenbat ikasleek gainditu ez duten arloa) irakurketa egingo da.

Kasuak horrela eskatzen duenean, iazko emaitzak ikustera joko dugu datuak argitu nahian (baita ebaluazio diagnostikora ere).

Ikasleak zikloa gainditu ez eta mailaz promozionatzeko (zikloa gainditu gabe kasuak aztertuko dira eta aldeko eta kontrako iritziak izendatuko dira) eta hurrengo mailara pasatzeko erabakia, gela horretara sartzen diren irakasleen esku geratzen da, azkeneko

erabakia ikasketa buruarena izanik. Beti ere errepikatzea eskubide bat dela jakinik. Ziklo bukaerako taldeek, kurtso bukaeran, ziklo bukaerako txostena bete beharko dute (HIBP).

DBHra pasatzen diren ikasleen jarraipena egingo da, Orobigoitiakoei lehen hiru hilabeteko emaitzak eskatuz.

Ebaluazio horietan dagokion akta beteko da, irakasle eta gurasoen arteko gai garrantzitsu eta akordioak idatziz. Akta hau ikasketa buruak espezialisten laguntzarekin hartuko du.

Faltak eta notak aplikazioa erabiliko dugu ikasleen nota txostena ateratzeko. Notak pertsolanizatuak izango dira. Familiak erabakiko du ze hizkuntzatan jaso nahi dituen notak zeren testu kopurua mugatuta dago eta. Aurten 1go eta 2.en ebaluaketetan emailez bidaliko dira eta azken notak bakarrik emango dira paperean. Bertan kurtso osoko notak agertzen dira.

Bestetik, errepikazen duen ikasleari, banakako tutoretza deitzen den artxiboa beteko diogu elebitan eta ekaineko notekin batera emango zaio familiari. Bertan, ikasleak ikasketa prozeduan izandako zailtasunak adieraziko ditugu.

### EBALUAZIO DATAK 21-22

#### 1. HIRUHILABETEA (IRAILAK 8-ABENDUAK 2)

1. zikloa	1./2. zikloa	2.zikloa
1.A azaroaren 17an 1.B azaroaren 18an	3.A azaroaren 23an 3.B azaroaren 24an	5.A azaroaren 29an 5.B azaroaren 30ean
2.A azaroaren 19an 2.B azaroaren 22an	4.A azaroaren 25ean 4.B azaroaren 26an	6.A abenduaren 1ean 6.B abenduaren 2an
<b>Notak banandu      Abenduaren 3ean</b>		

#### 2. HIRUHILABETEA (ABENDUAK 3-MARTXOAK 16)

1. zikloa	1./2. zikloa	2.zikloa
-----------	--------------	----------

1.A martxoaren 16an 1.B martxoaren 15ean	3.A martxoaren 10ean 3.B martxoaren 9an	5.A martxoaren 4an 5.B martxoaren 3an
2.A martxoaren 14an 2.B martxoaren 11an	4.A martxoaren 8an 4.B martxoaren 7an	6.A otsailaren 28an 6.B otsailaren 25ean
<b>Notak banandu Martxoaren 18an</b>		

-Ikastetxeko urteko planaren jarraipen ebaluazioa- martxoaren 17tik 22era  
-Martxoaren 23etik 26ra irakasleekin batzartu- errepikapen posibleak

<b>3. HIRUHILABETEA (MARTXOAK 17-EKAINAK 21)</b>		
<b>1. zikloa</b>	<b>1./2. zikloa</b>	<b>2. zikloa</b>
1.A ekainaren 1ean 1.B ekainaren 3an	3.A ekainaren 7an 3.B ekainaren 8an	5.A ekainaren 6an 5.B ekainaren 2an
2.A ekainaren 13an 2.B ekainaren 14an	4.A ekainaren 9an 4.B ekainaren 10ean	6.A maiatzaren 30ean 6.B maiatzaren 31an
<b>Notak banandu Ekainaren 21an</b>		
Ikastetxeko urteko planaren oroitidazkiaren ebaluazioa.- ekainaren 21etik aurrera		

#### **Irakasleriaren eginbeharren esleipenerako irizpideak** *Criterios de asignación de tareas del profesorado*

Eskolako funtzionamendu egoki baterako irakasleok bete behar ezberdinak ditugu. Eskolako lehenengo klaustroan, eskolak parte hartzen duen proiektu, batzorde eta mintegi guztien arduren esleipena egiten da. Irakasle guztiek daukate ardura bat.

Egunerokotasunean eskolako esparru guztietan harrerarako ardura espezifikoak banatuta daude irakasleagoaren artean. ( sarrerako musika ipini eta kendu, umeen harrera egin, ).

Aurten ere, Covid 19aren ondorioz, **kontingentzia plana** burutu beharra izan dugu. LHko ikasleen kasuan hidrogelarekin garbitzen dituzte eskuak. HHko ikasleek, gelara sartu eta jaboiarekin garbitzen dituzte eskuak. Kontingentzi plana eranskinetan agertzen da.

Aurten Covid-19aren ondorioz, tutoreak edo espezialistak euren ikasleen bila jeitsiko dira eskolako aterpera.

Ikasturtean zehar izaten diren bilera eta ikastaro ezberdinetan parte hartzen dugu eta arloari lotutako irakasleak parte hartzen dute. Beti ere, babes neurriak kontuan izanda.

#### ↳ **Tutoretzen banaketarako irizpideak** *Criterios de distribución de tutorías*

2021-22 ikasturtean jarraitu ditugun irizpideak hauek izan dira:

- 1.- Taldea aukeratzeko orduan irizpiderik garrantzitsuena ikasleen/taldearen ONURA izango da, horretarako, irizpide pedagogikoak hartuko dira kontuan (azken erabakia ikasketa buruak izango du).
- 2.- Ez dira bateragarriak izango idazkaritza eta haur hezkuntzako HH 2 eta HH 3 urteko gelak.
- 3.- Zikloen banaketa lehen hezkuntzan: 2 ziklo egongo dira LH 1, 2, 3 eta LH 4, 5 eta 6.
- 4.- Tutorea bere taldearekin bi edo hiru ikasturte jarraitzea errespetatuko dugu.
- 5.- Antzintasuna ikastetxean.
- 6.- Erregistro zenbaki pertsonala
- 7.- Zuzendaritzak, ikastetxearen, ikasleen zein irakasleen beharrianak ikusita, irizpide hauetan oinarritzen ez diren erabakiak har ditzake.
- 8.- 2. zikloko tutorea izateko, irakasleen kompetentzia digitalerako gaitasunak kontuan hartuko dira.
- 9.- Oposaketetako praktikaldira datozen iraskaleak, eskolan esperientzia duten irakasleekin mailakatzen saiatuko gara, kasuan kasu.

#### ↳ **Jarduera eskusibo saioen antolaketa [haur eta lehen hezkuntzan] eta ikastexean ezohiko arreta emateko saioen antolaketa [beste mailatan]** *Organización de sesiones de dedicación exclusiva [infantil y primaria] y organización de sesiones de permanencia no habitual en el centro [otros niveles]*

ASTELEHENEAN	Zikloak, mailak, lan taldeak/batzordeak, programazioak, formakuntza // 12:30-13:30
ASTEARTEAN	Zikloak, mailak, lan taldeak/batzordeak, programazioak, formakuntza // 12:30-13:30
ASTEAZKENEAN	Gurasoak eta HLPE batzordea // 12:30-13:30
OSTEGUNEAN	Klaustroak, batzorde pedagogikoa, mailak // 12:30-13:30
OSTIRALETAN	Lan pertsonala // 12:30-13:30



📄 **Ikasleak taldekatzeko irizpideak** *Criteria de agrupación del alumnado*

Ikastetxean eredu bakarra dago (D). Ikasturte honetan, eskola 2 lerrokoa da maila guztietan. Maila berean ikasleak, 2 gelatan banatzeko, erabili diren irizpideak hauek dira:

IRIZPIDEAK	
HAUR HEZKUNTZA	LEHEN HEZKUNTZA (2.mailan taldekatze berria)
Generoaren arabera.	Generoaren arabera
Bikiak gela berdinean aukera gurasoei eman	Bikiak gela berdinean edo ezberdinetan beharren arabera
Ama hizkuntza euskara - 4tik behera gela berean - 5etik gora beste gelan	Euskara maila
Euskara maila	Maila akademikoa eta soziala: emaitza, jarrera eta lan erritmoa
Atzerritar kopurua	Errefortzuak
Jaiotza data	Errepikatzaile kopurua
Premia berezidunak	Premia berezidunak
	ISEK
	Jantokia
	Afinitatea
	Baliadibeen eta ordutegiaren antolaketa

	* Salbuespena: derrigorra bada aldaketak egingo ditugu.
--	---

Irizpide hauek kontutan hartuta, IRAKASLE TALDEAK (maila horietan klaseak ematen dituztenak), ikasleak talde ezberdinetan banatuko dituzte.

2 urteko gelako taldeak egin baino lehen, ekainean hartzaindegiko irakasleekin batzar bat egiten da. Tutoreak nortzuk izango diren ez badakigu 2 urteko gelan dauden irakasleak joango dira. Ekaineko batzarrean gurasoentzat garrantzitsua den informazioa ematen da eta bide batez eskola erakusten zaie.

Irailean beste batzar bat egiten da, ekainean esandakoa gogoratzen da eta ikasturteko funtzionamendua azaltzen da.

HH2 urteko gelan bikiak gela berdinean ipintzeko aukera eskainiko zaie familiei eta eskolako beharren arabera egingo da banaketa. Matrikula egiterakoan aproposa ikusten dugu umeen ama hizkuntza zein den galdetzea. Batzar honetara herriko euskara teknikaria etortzen da gurasoei hainbat informazio pasatzera (batzar eguna zehazten denean ikasketa buruari abisatu honek teknikariari esateko).

⬇ **Hezkuntza errefortzua eta laguntza antolatzeko irizpideak**  *Criterios de organización del apoyo y del refuerzo educativo*

CEIP ZALDIBAR HLHI ikastetxeko irakasleen ordu libreak ikasleei laguntzak ematera bideratzen dira gehien bat. Horretaz gain proiektuak (eskolako agenda 2030, bizikidetzaz, HNB, IK-KI, Musika, Gorputz Hezkuntza, IKT/2.0, Ingelesa, HLPE batzordea ...) aurrera eramateko ere irakasle batzuen saioak erabiltzen ditugu.

Hala ere horrela geratuko litzateke gela bakoitzak dauzkan laguntzak.

**2 urte:** 2 gela daude. Laguntzako irakasle bat sartzen da tutoreak libratzeko eta laguntzak emateko. Egokitzapenean hirurak egon dira.

**3 urte:** gela 2 daude. HHko laguntza irakaslea sartzen da saio batzuetan. Gela batean ALE (ordu erdiko saio bat astean), PT (3 saio astean) eta HEZITZAILEA (18 saio astean).

**4 urte:** Gela bakarra dago. euskara errefortzua jasotzen dute astean ordu beteko saio bat. HHko laguntza ere sartzen da. ALEak 2 saio ditu (ordu erdikoak).

**5 urte:** 2 gela daude. euskara errefortzua gela bakoitzean astean ordu 1eko saio bat. Gela batean: Hezitzailea (16 saiotan), PT (saio 1 egunean) eta ALE (ordu erdiko 2 saio astean). Beste gelan ALE (ordu erdiko saio 1 astean).

**1. maila A:** PT irakaslea (4 saio), ALE (2 saio ordu erdikoak 2 ikaslerekin), laguntza irakaslea (2 saio), mate laguntza saio 1 eta HIPI irakaslea (4 saio).

**1. maila B:** HIPI irakaslea ( 5 saio), mate laguntza saio 1 eta laguntza irakaslea ( 5 saio)

**2. maila A:** eta PT irakaslea (6 saio), Hezitzailea (10) saio, mate laguntza saio 1, ALE ordu erdiko (3 saio)

**2. maila B:** PT irakaslea (5 saio),mateko laguntzaile saio 1, laguntza irakaslea (2 saio) eta ALE (ordu erdiko 3 saio )

- 3. maila A:** Aholkularia (3 saio), hezitzailea (4 saio), laguntza irakaslea saio 1 eta mate laguntza saio 1
- 3. maila B:** PT irakaslea (6 saio), HIPI irakaslea (4 saio), laguntza irakaslea (saio 2) eta hezitzaileak (2 saio) eta mate laguntza saio 1.
- 4. maila A:** Hezitzailea (3 saio), PT irakaslea (5 saio), laguntzako irakaslea (3 saio)
- 4. maila B:** PT irakaslea (4 saio) eta laguntza irakaslea (3 ordu), hezitzailea 3 saio.
- 5. maila A:** laguntza irakaslea (4 saio), PT 5 saio, hezitzailea 2 saio.
- 5. maila B:** Laguntza irakasleak (6 saio), aholkularia (5 saio)
- 6. maila A:** Hezitzailea (saio 2), PT irakaslea (6 saio) eta HIPI irakaslea (4 saio) eta laguntza irakasleak (3 saio).
- 6. maila B:** PT (6 saio) eta HIPI irakaslea (5 saio). Irakasle erreferenteaz gain beste irakasle bat sartuko da gelan laguntza emateko espezifikoak ez diren irakasgaietan.

📌 **Amankomuneko guneen antolaketarako eta banaketarako irizpideak**  *Criterios de organización y distribución de los espacios comunes*

HH JOLASORDUA:

3 eta 4 urtekoak: 10:30tik 10:55arte.

5 urtekoak: 11:05tik 11:35arte.

Jolas orduaren ordutegia 11:00etatik 11:30etara da 3 eta 4. mailakoentzat.

\*5 eta 6. mailakoak 5 minutu arinago irten eta sartuko dira.

\*1 eta 2. mailakoak 5 minutu beranduago irten eta sartuko dira.

Kiroldegia, gelak eta Solobarria futbol zelaia erabiliko dira patio moduan.

Euria den kasuan, A edo B taldeak, kiroldegira aterako dira baina agian gelan geratzeko aukera aztertuko da. Txandaka.

Aurten, Covidagatik, espezifikoek beti maila berdina zainduko dute talde burbujak mantentzeko asmoz.

HH2		Irakasleak	Aparteko funtzionamendua dute. - Eraikuntza berrian beraien jolas eremua dute eta berau zaindu beharko dute.
HH	Haur hezkuntzako patioa: frontoia, pezera, aterpea, patioa eta kolunpioak.	Irakasleak Espezifikoak	* Arauak: - ikasleek komunera doazela esan behar dute. - 3 urtekoak komuneraino lagundu behar ditugu. - Errespetuzko jarrerak bultzatzea. - Inguru fisikoa zaintzea. * Antolaketa: Ikasturte honetan (Covid 19 dela eta) umeak ezin ditugunez

			<p>nahastu eta eguraldiaren arabera, espazioak txandaka erabiliko ditugu.</p> <p>* Ume batek min hartzen duenean:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Irakasle bat arduratuko da berataz.</li> <li>- Kolpea bada, hozkailuan dagoen gel-izoztua jarri.</li> <li>- Zauria bada, ura eta jaboi neutroarekin garbitu. Behar denean, tiritu jarri.</li> </ul>
LH	1, 2 eta 3. maila patio irekia edo aterpean	Irakasleak Espezifikoak	<p>Irakasleen banaketa: aterpea, patioa eta ate bien zainketa. Lhko A eta D eremuetan daudenei dagokie . HHko ate berria G eremuan dagoenari dagokio itxita dagoela ziurtatu.</p> <p>Patioak 2 tutore eta espezialista baten artean banatzen dira, astean gutxienez 3 patio zaintza eginez eta irakasle bakoitza egokitutako taldearekin( tokian ) egoten dira. ( A, B, D... )</p> <p>Ezin da patiora ezer jaitsi.</p> <p>Ostegunetan fruta eguna</p> <p><u>Arauak:</u></p> <p>Hamaiketako aterpean edo gelan jango dugu, alergiak direla eta.</p> <p>Eraikuntza barrura sartzeko baimena eskatuko dute.</p>
LH	4, 5 eta 6. maila Futbol zelaian eta kiroldegian	Irakasleak Espezifikoak	<p>Urriaren 25etik aurrera materiala aterako da.</p> <p>Maila bakoitzak bere espazioa izango du talde burbuilak mantentzeko.</p> <p>Eguraldi ona dagoenean, futbol zelaia erabiliko dugu jolasteko.</p> <p>Irakasle batzuk barruan egongo dira eta kanpoan, beharra balego.</p> <p>Jolasen antolaketa:</p> <p>Musika aukera egunero izango da.</p> <p>Elkarbizitza batzordetik antolaketa berria eratzen dabilta.</p>

Hauek dira komunean ditugun espazioak:

- Psikomotrizitate gela: Aurten saio bakarrean erabiliko dute. Egunero bi taldek erabiliko dute eta saioa bukatu ondoren, gela aireztatu eta materiala desinfektatu beharko dugu irakasleok. Astelehen eta asteazken eguerdian fisioterapeutak erabiltzen du.
- Liburutegia: Covid 19aren ondorioz, ikasleak ez dira liburutegira joango. Saio batzuetarako HIPI gela bezala erabiliko da.
- Musika gela-erabilera anitzekoa. Saio batzuetan, beti ere, egutegi bat jarraituz eta kontutan izanda, formakuntza, klaustro... dagoen ikusita, erabilera emango zaio musika gelari.
- Kiroldegia: Gorputz hezkuntzako ordutegiaren menpe. Jolas orduan taldeka erabiltzen dute (2. zikloak). Bazkal ostean, eguraldi txarra dagoenean, lehen hezkuntzako ikasleek erabiliko dute.

Kiroldegiaren erabileran eskolak eta eskolaz kanpoko ekintzek daukate lehentasuna. Libre dauden orduak udalari uzten zaizkio berak kudeatu ditzan.

- Bidelaguna proiektua 6. mailako gelan burutuko da , astelehenetik ostegunera arratsaldeko 16:15-17:15ra. Informatika gela erabiltzeko aukera ere badauka. Covidagatik, aurten mailaka banatu dira eguna. Astelehena eta asteazkena 5.maila eta asteartea eta osteguna 6.maila.
- Covid gela, zuzendaritza ondoko gelakoa izango da.
- Erlijioako katolikoko irakasleak eta laguntza irakasleek informatika gela konpartituko dute.
- Gela anitza 1. solairua: Konfinatutako ikasleekin Meet bitartez bideokonferentziak egingo dira.
- Informatika gela: erlijioako irakasleak, batzorde pedagogikoko bilerak eta eskolako ikasleek erabiliko dute. Atean ordutegia jarri da.
- 1. solairuko mintegi txikiak logopeda, laguntzako irakasleak eta ingeleseko irakasleek erabiliko dute.

📄 **Irakasleria eta tutoretzen banaketa** *Profesorado y distribución de tutorías*

<b>IZEN ABIZEBAK</b> <i>NOMBRE Y APELLIDOS</i>	<b>MAILA-ETAPA-TALDEA</b> <i>NIVEL-ETAPA-GRUPO</i>	<b>KARGUA</b> <i>CARGO</i>	<b>ORDU GUTXI</b> <i>REDUC. HOR</i>	<b>ZIKLO/DEPARTAMENTUA</b> <i>CICLO-DEPARTAMENTO</i>	<b>FAMILIEI ARRETARAKO ORDUTEGIA</b> <i>HORARIO ATENCIÓN FAMILIAS</i>
Asier Munitis Guridi	LH	Zuzendaria		LH 2. zikloa	Egunero 11:00-12:00tara. Aurretik adostutako ordutegiak.
Nagore Alegria Malatsetxebarria	LH	Ikasketa burua		LH 1. zikloa	Egunero 10:00-11:00
Isabel Etxebarria del Canto	HH	Idazkaria		HHko zikloa	Egunero 10:00-11:00
Liria Gonzalez Ania	HH-LH	Liburutegia		HHko zikloa	Asteazkena 10:00-11:00
Liria Gonzalez Ania	HH-LH	Jantokia		HHko zikloa	Egunero 11:30-12:30

Juncal Franco/Zihara Sardui	HH 2A	Tutorea		HHko zikloa	Asteazkena 12:30-13:30
Nerea Munitxa/Lorena Peña	HH 2B	Tutorea		HHko zikloa	Asteazkena 12:30-13:30
Maidier Azpillaga Barrutia	HH3A	Tutorea		HHko zikloa	Asteazkena 12:35-13:35
Idoia Intxaurreaga Irulegi	HH 3B	Tutorea		HHko zikloa	Asteazkena 12:30-13:30

Iratxe Olibares Rejas	HH 4A	Tutorea		HHko zikloa	Asteazkena 12:30-13:30
Maite Jaio Aiertzaguena	HH 5A	Tutorea		HHko zikloa	Asteazkena 12:35-13:35
Irune Astigarraga/Ane Hormaetxe	HH 5B	Tutorea		HHko zikloa	Asteazkena 12:35-13:35
Marta Peña Vecilla	HH	HH laguntzailea		HHko zikloa	Asteazkena 12:30-13:30
Juanjo Obregon Sancho	LH 1A	Tutorea		LH 1. zikloa	Asteazkena 12:30-13:30
Nuria Sanchez Martinez	LH 1B	Tutorea		LH 1. zikloa	Asteazkena 12:30-13:30
Ainhoa Iturrieta Ruiz	LH 2A	Tutorea		LH 1. zikloa	Asteazkena 12:30-13:30
Maialen Lazkano Mugica	LH 2B	Tutorea		LH 1. zikloa	Asteazkena 12:30-13:30
Mila Mondragon Sagastagoia	LH 3A	Tutorea		LH 1. zikloa	Asteazkena 12:30-13:30
Arantza Abaunza Jainaga	LH 3B	Tutorea		LH 1. zikloa	Asteazkena 12:30-13:30
Leire de Salazar Zugaza	LH 4A	Tutorea		LH 2. zikloa	Asteazkena 12:30-13:30
Unai Egia Lauzirika	LH 4B	Tutorea		LH 2. zikloa	Asteazkena 12:30-13:30
Nagore Lopez Plaza	LH 5A	Tutorea		LH 2. zikloa	Asteazkena 12:30-13:30
Unai Orbe/Clara Prego Landaribar	LH 5B	Tutorea		LH 2. zikloa	Asteazkena 12:30-13:30
Joseba Abalde Enderiz	LH 6A	Tutorea		LH 2. zikloa	Asteazkena 12:30-13:30
Aitor Adot Zubiaurre	LH 6B	Tutorea		LH 2. zikloa	Asteazkena 12:30-13:30
Amaia Urizarbarrena Gonzalez	LH	INE		LH 2. zikloa	Asteazkena 12:30-13:30
Egoitz Angoitia Lamarain	LH	Laguntza covid		LH 1. zikloa	Asteazkena 12:30-13:30
Ibon Gabiola Idoiagabeitia	LH	Gorputz Hezkuntza		LH 1. zikloa	Asteazkena 12:30-13:30
Iratxe Uribelarrea Solozabal/Aitziber Elizaran Zabaleta	HH-LH	Musika		LH 1. zikloa/HHko zikloa	Asteazkena 12:30-13:30
Julene Lazkano Zenitagoia	LH	Ingelesa		LH 2. zikloa	Asteazkena 12:30-13:30
Ainhize Aretxaga Aguirre	HH-LH1z	Ingelesa		LH 1. zikloa	Asteazkena 12:30-13:30
Karmele Benito Uriarte	LH	Pedagogia Terapeutikoa		LH 1./2. zikloa	Asteazkena 12:30-13:30
Idoia Lariz Inchausti	HH-LH	Pedagogia		LH 1. zikloa	Asteazkena 12:30-13:30

		Terapeutikoa			
Olaia Araukua Ortueta	LH	Pedagogia Terapeutikoa		LH 2. zikloa	Asteazkena 12:30-13:30
Izarra Goyogana Elustondo	HH-LH	Kontsultorea		LH 2. zikloa	Asteazkena 12:30-13:30
Eskar Villar Elosu	HH-LH	Laguntza espezialista		HH / LH 1. /2. zikloa	Asteazkena 12:30-13:30
Nati Ormaetxea Zamalloa	HH-LH	Laguntza espezialista		HH/ 2. zikloa	Asteazkena 12:30-13:30
Itziar Barritieta Anduiza	LH	Laguntza espezialista		LH 1./2. zikloa	Asteazkena 12:30-13:30
Oihana Sololuce	LH	Laguntza espezialista		LH 1./2. zikloa	Asteazkena 12:30-13:30

↓ **OOG-ren partaideak [titularrak]** *Composición del OMR [titulares]*

IZEN ABIZENAK / NOMBRE Y APELLIDOS	TALDEA / GRUPO					BATZORDEA / COMISIÓN
	irak / profes.	ikas / alumn	guras / fam	adm- zerbitz	udal / ayto	
Maite Jaio Aiartzaguena	x					Iraunkorra
Miren Irune Astigarraga Otamendi	x					
Karmele Benito Uriarte	x					
Idoia Intxaurreaga Irulegi	x					
Nagore Lopez Plaza	x					
Iratxe Olibares Rejas	x					
Juan Jose Obregon Sancho	x					
Ainhoa Iturrieta Ruiz	x					
Unai Orbe Mateo	x					
Leire De salazar Zugaza	x					
Asier Munitis Guridi	x					Ekonomia/Iraunkorra-Covid
Nagore Alegria Malatsetxebarria	x					Iraunkorra/Ekonomia
Isabel Etxebarria del Canto	x					Ekonomia / iraunkorra
Nerea Urizar Ugartemendia			x			
Maite Ortiz de Guzman Baz			x			Iraunkorra

Jon Barañano Rodriguez			x			
Ainara Arana Azula			x			
Ainhoa Aurrekoetxea Salazar			x			Ekonomika
Saroa Ibañez Ortiz			x			Iraunkorra
Idoia Marin Kortazar			x			
Joseba Pérez Camacho			x			
Angel Blanco Gaiton			x			
Nora Leon Garcia			x			Iraunkorra
Jasone Urizar Ugartemendia			x			
Jagoba Villanueva Ávila			x			
Ainara Otaolea Ereñaga			x			Covid 19 Taldea
Oiane Gangutia Cobos			x			
Maider San Vicente Martín			x			
Jose Luis Maiztegi Onaindia					x	Ekonomia

📄 **OOG-ren partaideak [ordezkoak]** *Composición del OMR [suplentes]*

IZEN ABIZENAK / NOMBRE Y APELLIDOS	TALDEA / GRUPO					BATZORDEA / COMISIÓN
	irak / profes	ikas / alumn	guras / fam	adm-zerbitz	udal / ayto	
Aranzazu Abaunza Jainaga	x					
Maider Azpillaga Barrutia	X					
Aitor Adot Zubiaurre	X					
Iratxe Uribelarrea Solozabal	X					
Izarra Goyogana Elustondo	X					
Liria Gonzalez Ania	X					
Olaia Araukua Ortueta	X					
Juncal Franco Eguren	x					
Gurasoen artean ez dago ordezkorik bajak			x			



egon direlako eta ordezkioak sartu dira						
Zerbitzuko langileen artean ez dago ordezkorik. Taldean sartuta daude.				x		Zerbitzuetako arduraduna jubilatuzenez eta ordezkorik ez dagoenez, plaza hau hutsik geratzen da hurrengo hauteskundeetara arte.

### 3.1.2. Esperientziak, programak eta proiektuak experiencias, programas y proyectos

↳ **Esperientziak, programa edota berrikuntzak ikastetxean** *Experiencias, programas y/o proyectos que se desarrollan en el centro:*

**Izenburua edo gaia** *Título o tema*

**BIZIKASI / ELKARBIZITZA / HEZKIDETZA**

**Oharrak** *Observaciones*

Bizikasi ekimena dela eta ikastetxetik, honen inguruko formakuntzak emango zaizkie, familiei, klaustrokideei ,AZP langileei eta eskolaz kanpoko ekintzen begiraleei. Covid 19ko babes neurriak kontutan hartuta egingo dira formakuntzak, aurrez aurre edo , informazioa emailez bidaliz,aforoaren arabera.Elkarbizitza batzordetik ikasleei ere bizikasiren inguruko informazioa eta BAT taldearen funtzionamenduaz hitzegingo zaie.

Hezkidetza proiektuko (2020-2022) bigarren ikasturtea den honetan, markatutako helburuak lortzeko jarduerak aurrera eramango dira, COVID 19aren babes neurriak errespetatuz. Honetarako, era kolektiboan egiteko direnak ,burbuia mantentzeko taldeetan antolatuz eta gurasoen partehartzea murriztuz.

**Izenburua edo gaia** *Título o tema*

**ESKOLA AGENDA 2030. GARAPEN IRAUNKORREKO HELBURUAK**

**Oharrak** *Observaciones*

AGENDA 2030eko gaia GARAPEN IRAUNKORREKO HELBURUAK lantzea da. koordinatzailea Durangoko berritzegunean

hilero elkartuko da Durangaldeko eskoletako beste koordintzaileekin eta Ingurugelako arduradunekin proiektua aurrera eramateko. INGURUGELAK 3 helburu lantzea proposatzen du: 1) Kalitate oneko hezkuntza, 2) edateko ura eta saneamendua eta 3) uretako bizitza. COVID 19aren eraginez ikasgelak burbuila bezala lanean diardutela kontuan hartuz ikastetxeko beharrak kontuan hartuko dira, landu beharreko edukiak aukeratzeko. Guzti hau eskolako AGENDA 2030 BATZORDEAK bideratuko du.

**Izenburua edo gaia** *Título o tema*

## **EUSKARAREN NORMALKUNTZA**

**Oharrak** *Observaciones*

HELBURUA:

Euskararen erabilera sustatzea eta ahal den neurrian eskolatik kanpora proiektatzea. Bide horretan ezinbestekoa da herriko euskara teknikaria, eskola, familiak eta herriko eragile guztiak elkarrekin lanean aritzea. Horretarako batzar ezberdinak antolatuko dira herri mailako erronka honi aurre egiteko. Justifikatzen duten beharrak euskararen erabilera eta ezagutzaren arteko desoreka dira eta gure helburuak eskola esparruan euskararen erabilera zaintzea eta bultzatzea dira. Ekintzak ihazkoen ildotik joango dira eta egoki ikusten diren berrikuntzak egingo dira. Eskolako estamentu guztiak inplikaturik egongo gara. Batzar honetan HNParen arduradunek parte hartzen dute. Puntualki Udaleko euskara teknikaria ere etor daiteke.

Proiektu hau gauzatzeko baliabideak eskolako aurrekontutik, udaletxetik eta ondoren azaltzen diren NOLEGAko laguntzetatik lortzen dira:

NOLEGA

IKE. Proiektu honen helburua euskara bultzatzea da, batez ere eskola orduetan eta eskola esparruan, baina ahal den neurrian eskolatik kanpora proiektatzea ahaztu gabe.

EGE. Euskararen erabilera eskola-egoeraz kanpo izango da gure justifikazioa, eta helburua, umeei euskara, batez ere hizkuntza ez formala, erabil dezatela kolonietan. Aterpetxeetan izaten dira egonaldiak, beraz, hauen ekintzetara begira moldatzen dugu. LHko 2., 4. eta 6. mailakoek hartzen dute parte deialdi honetan eta laguntza eskatzen dute. Ebaluazioa egonaldiak amaitzen direnean egiten dugu. Aurten, COVID-19arekin sortu den egoeratik posible da bertan behera geratzea.

ZINEMA EUSKARAZ: Urtero Lehen hezkuntzako maila guztietako ikasleak euskarazko pelikulak ikustera joaten dira

Durangora (ikasturtean 2 aldiz). Aurten, COVID-19arekin sortu den egoeragatik pelikulak ikastetxean, online, ikusiko ditugu.

#### AHOZKOTASUNAREN LANKETA.

Azken urteetan bezala, aurten ere bertsolaritza landuko da ahozkotasuna lantzeko.

Bertsolaritza. Euskararen erabilera-ezagutza bultzatzea izango da helbururik nagusia. Honekin batera Euskal Herriko ohiturak ezagutzea. Horretarako, eskola arteko bertso zirkuituan parte hartuko dugu, aurreko urteetan egin dugun bezala. Ikasturte honetan euskal kulturako hainbat abesti ezagutarazteko abeslari batekin kantaldia antolatuko da.

Programatuko ditugun ekintzak hauek izango dira:

Ikasturterako Bertso zirkuitoaren daten proposamena egoten da (COVID 19 dela eta aurten ez dago data zehatzik eta litekeena da ekintza hau ez egitea.

NON	EGUNA	GAIKA	KOPLAKA	PUNTUKA/ OFIZIOKA	OINAK EMANDA
